



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**4**

**Xangai Xian Xi, txinatarrekin  
ederki!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 3. maila)

## TXANELA 3: LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

### “XANGAI XIAN XI, TXINATARREKIN EDERKI!”

**Proiektua:** Antzerki edo txotxongilo bidezko emanaldi egitea.

#### ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubidea, harremanak eta bake hezkuntza.	Jatorri desberdinetako kideak. Familia motak. Emigrazioa. Elkartasuna. Txukuntasuna. Beste kulturekiko errespetua.
Osasun Hezkuntza	Dieta orekatua, sendabelarrak, akupuntura, erlaxazioa.

#### EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Igarkizunak: <i>J.M. Olaizola “Txiliku”</i> . Olerkiak: <i>J.M. Olaizola “Txiliku”</i> . Ipuina: “Yongzhu” <i>Mitxel Murua</i> . Bertsoa: <i>Mikel Mendizabal</i> Ipuin literarioa: “Nire arreba Aixa” <i>Meri Torras</i> Esaera zaharrak eta esamoldeak. Euskara eta euskalkiak. Euskararen erabilera.
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: “Xangai Xian Xi.” <i>Joxean Ormazabal</i> eta <i>Imanol Urbieta</i> . Tradiziozko abestia: “Araban Bagare”.
Ingurumena	Euskal Herriko populazioa, mendiak eta ibaiak (alderaketa). Turismoa Euskal Herrian.

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0	 IRASKASLEA	Baliabideen taula	3	121
15		<i>Xangai Xian Xi</i>	15	133
19		<i>Olerki txinatarra</i>	18	136
24		<i>Araban bagare</i>	20	138
27		Txina iruditan	21	139
40		<i>Olerki txinatarra</i>	32	150
47		<i>Txinako dantza (Intxaur-hauskailua)</i>	35	153

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Aurreikuspen-estrategiak landu eta hurrak motibatzeke asmoz, liburuaren azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bide emanaz.

Hasteko izenburuari erreparatuko diogu:

- Zer adierazi nahi digu izenburuak? Zein hizkuntzatan idatzia dago? Zer uste duzue esan nahi dutela “Xangai Xian Xi” hitzek?
- Ezagutzen al duzue irudian agertzen den elementuren bat?
- Zer da otar bi zintzilika dituen makila hori? Zertarako balio du? Zuk etxean bazenu, zertarako erabiliko zenuke?
- Zein motatako eraikina da azalean agertzen dena? Ba al dakizu zein izen duten horrelako eraikinek? Zergatik uste duzu izango dituela horrenbeste balkoi? Eta horrelako forma? Nortzuk biziko dira horrelako eraikinetan? Euskal Herrian ba al dago horrelakorik edo antzekorik?
- Irudian agertzen den neskatilaren jantziak Euskal Herrian erabiltzen ditugun antzekoak al dira? Zergatik? Zertan esango zenuke direla berdina? Eta desberdina? Imajina dezagun horrelako jantzi batekin goazela egun batean ikastolara, zer uste duzu gertatuko litzatekeela? Zergatik?
- Ikusi al duzu inoiz azalean agertzen den bezalako herensugerik? Non? Noiz? Zer dakizue herensugeei buruz?

Ekarri gogora dakizuen guztia. Lehenengo mailan dinosauruen unitatean artista txinatarrek euren zeramikak apaintzeko herensugearen irudia erabiltzen zutela ikusi zuten, honez gain hauei buruzko ipuinen bat ere landu zuten.

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu eta honen inguruan elkarrizketa sortuz, aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu eta iragartzeari ekingo diogu:

- Zer adierazi nahi digu izenburuak? Euskal Herrian urte berria ilargiak ekartzen al du? Noiz da urteberri eguna Euskal Herrian? Zein izen du urte berri aurreko egunak? Zein datatan izaten da? Eta orokorrean sasoi horri nola esaten diogu? Gabonak.
- Hain berandu izaten al da urteberria hemen? Zergatik uste duzu txinatarrei hain berandu helduko zaiela urte berria? Azal ditzatela euren hipotesiak beldurrik gabe.

Ondoren, komikia bakarka irakurriko dute eta bukaeran elkarrizketa burutuko dugu.

- *Ttonttorperko ikastolako haurrak hainbat jolasetan jolasten ari dira jolastorduan. Ezagutzen al dituzu jolasok? Zein dira jolas horien izenak? Gustuko al dituzu? Zuek zertara jolasten zarete jolas-orduan? Bakarrik, talde txikian edota talde handian jolasteko joera duzu? Zein duzu nahiago? Zergatik?*

- *Ttonttorpen hainbat jatorritako ikasleak daude, Sidi Hayduk eta Mei Li adibidez, zuen ikastolan ba al dago jatorriz Euskal Herriatik kanpoko den ikaslerik? Nongoa da jatorriz? Zer dakizue haren jatorriko herriari buruz?*

- *Munduko hirugarren herrialderik handiena Txina dela esaten du maisuak, zein uste duzu izango dela lehenengoa? Eta bigarrena? Eta zein tokitan egongo da gutxi gora behera Euskal Herria, hasieran, erdialdean edota bukaera aldera?*

- *Xabier Mainerri, Mei Li eta bere asmoa zein den kontatzen ari zaion bitartean, eskuak mugitzen ari da etengabe eta ia-ia arnasarik hartu gabe hitz egiten ari da, zergatik izango ote? Zuk ere horrela adierazten al duzu zure emozioa zerbaitek ilusio handia egiten dizunean? Eta triste zaudenean nola adierazten duzu tristezia hori? Zure ustez triste zaudenean tristezia hori adieraztea ondo al dago edota hobe da disimulatzea inor jabetu ez dadin? Zuk zer egiten duzu horrelakoetan? Zergatik?*

- *Zer egiten ari dira Kleo eta Martin? Zertarako uste duzu moztuko dutela egur hori?*

- *Zergatik ez dute joan nahi Morganek eta Xarpak afarira? Zu inoiz izan al zara txinatar jatetxeren batean? Gustuko al dituzu bertan prestatzen dituzten jakiak? Zergatik? Barazkiak jateaz gain haragijaleak ere badira, zein izaten dira eurek normalean jaten dituzten animaliak? Zeintzuk dira Txinan jaten diren eta hemen jateko ohiturarik ez dugun animaliak? Zuk probatu edo jango al zenuke horrelakoren bat jakinik zer den?*

### 3. Txinatar egutegia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 50. eta 51. or.*

Testuak irakurtzeko orduan, hainbat irakurketa mota egin ditzakegu helburuaren arabera. Hau da, ideia orokor bat izateko irakurketa arin bat egin daiteke. Baina, informazio zehatza nahi izanez gero, orduan, zehaztasunak ondo ulertzeko, bestelako estrategiak jarri beharko ditugu martxan. Badira hainbat testu, datu pilaketak izanagatik, ulertzeko korapilotsuak gerta dakizkiekenak ikasle batzuei. Hori dela eta, testu horiekin bi irakurketa mota horiek praktikan jarriko ditugu, kasu honetan bezala. Lehenengoa, testuaren nondik norakoaz jabetzeko egingo duguna izango da, hau da, ideia orokorraz jabetzeko. Utz iezaezue beraz, ikasleei tarte bat testua behin irakurri eta irudia azter dezaten. Gero, ulermen-estrategiak lantzeko asmoz, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu.

- *Zeri buruz hitz egiten du testu horrek? Zein esango zenukete dela testu horren ideia nagusia? Testua paragrafoz paragrafo aztertuko dugu. Erantzunak laburra, baina zehatza izan behar duela adieraziko diegu eta nolabait testuan adierazitako azpi-idea guztiak biltzen dituen. Ikasleek esandako esaldiak arbelean kopiatuko ditugu.*

- *Zein motatako testua dela uste duzue; azalpen-testua, argibide-testua edo argudiozkoa? Justifika dezatela egindako aukera, hau da, zein ezaugarri dituen horrelako testu batek eta ea testu horrek betetzen dituen aipatu ezaugarriok.*

Ondoren galdera zehatz bat egingo diegu.  
- *Gurearekin konparatuaz, zergatik aurreratzen da txinatar egutegia? Nor izango litzateke hori azaltzeko gai? Ulertu ahal duzue testuan azaltzen dena?*

Bigarren irakurketa mota talde handian egingo dugu, horretarako ikasle bakoitzari bere liburuaren ondoan papertxo bat edota koadernoan izan dezatela eskatuko diegu.

Testu horrek, Txinako egutegiaren inguruko informazioa ematen digu, gure egutegiarekin alderatuz, beraz esan dezakegu konparazio bidez ematen digula informazioa. Horregatik, arbelean bi zutabetan, “txinatar egutegia” eta “gure egutegia” izenburupean, egutegi bakoitzari buruz irakurritako datuak apuntatzen eta alderatzen joango gara. Ikasleek ere gauza bera egingo dute euren koadernoan, informazio hori era grafiko eta bisual batean, errazago ulertzeko moduan, idatziz. Eskemaren laguntzaz testua ulertu dutela ziurtatzeko, eskema aurrean dutela, ikasleren bati bertan adierazitakoa bere hitzekin azaltzeko eskatuko diogu. Galde iezaiezue ikasleei, eskema bidez informazioa hobeto ulertzeko gai izan ote diren edo ez, praktikoa iruditu zaien egindako jarduera ulermena ziurtatzeko etab.

Bukatzeko irakurgaietako azalpen-testuaren ondoan dagoen irudia erabiliz, ikasle bakoitzak, bere etxekoen edo bere lagunaren jaiotze data bertan aurkituz, txinatarren egutegiko zein animalia diren jakin ahal izango du.

#### **4. Antzezipena**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 50. eta 51. or.*

Irakurgai horretan, kondairak dioenez, Budak egutegia nola antolatu zuen azaltzen da. Istorioa polita denez, antzez dezakezue. Egutegian azaltzen diren 12 animalien mugimenduak aztertu eta imitatu behar dituzue, eta gidoi labur bat osatu. Antzezipen hau zuen ikuskizunean aurkez dezakezue.

#### **5. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua 6. or.*

Edozein gai hastera goazela ere, ikasleek beti izaten dute gai horri buruzko ezagutzaren bat. Horregatik, hasi aurretik, galdetuko diegu Txina hitza entzuterakoan zer den burura datorrena, modu honetan aurre-ezagutzak aktibatuko baitituzte. Orain arte ez bezala, aurre-ezagutza horiek kontzeptu mapa batean adierazteko eskatuko diegu, erdian hitz nagusia eta beste globoetan, hitz horrekin erlazionatua dagoen edozein kontzeptu idatziz. Ikasle bakoitzak bere unitateko jardura osatu ondoren, talde handian eta arbelean, kontzeptu mapa handi bat osatuko dugu, ikasgelako kide guztien ekarpenak bertan txertatuz. Kontzeptu guztiak idatzita ditugunean, banan-banan, kontzeptu horrek Txinarekin izan dezakeen lotura adierazteko gai diren galdetuko diegu. Hala balitz, kontzeptuen arteko loturak galdera bidez idatziko genituzke arbelean. Adibidez: *TXINA-nortzuk bizi dira?—TXINATARRAK*. Gogoratu, gure hizkuntzaren gramatika eta esaldien egituraketa zuzenaren izenean, txanela proiektuan, *loturak*, letra xehez eta galdera modura idaztea proposatzen dizuegula eta *kontzeptuak* berriz, letra larriz eta deklinaturik, deklinatzea eskatzen baldin badute behintzat.





## **8. Ikasnorabidea**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Hasteko, ikasnorabidean, ingurumenari dagokion blokea irakurtzeko tarte bat emango diegu ikasleei. Gero, ikasleek aukera izango dute, unitateari orriz orriko gainbegirada bat emateko, gaia nondik nora doan ikusteko.

Ikasnorabidera etengabe joan-etorrian ibiliko gara, lantzen ari diren edukiez jabetuz, ikasten ari direnaren kontzientzia izateko. Atalak era horizontalean irakurriko ditugu, hau da, bloke bakoitzean, hiru arloetan garatzen ari garenari erreparatuz.

## **9. Txinaren kokalekua**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Hasi aurretik ikasnorabidera egingo dugu joan-etorria, eta bloke honi dagozkion jarduerak egin ostean ere komenigarria litzateke itzultzea, egindakoari zentzu sakonagoa emateko.

Lehenengo mailatik hona ikasi dituzten zibilizazioak ageri zaizkie ikasleei historiaren ardatz kronologiko horretan. Ardatzean, zibilizazio bakoitzaren sorrera da markatu duguna, adieraz iezaiezue hau ikasleei, ez dezaten pentsa hor hasi eta bukatu zenik zibilizazio bakoitza.

Talde handian, ekar ezazue gogora zibilizazio hauetariko bakoitzari buruz dakizuena. Gero, beha iezaziozue Txinari dagokion irudiari. Oso luzea da, Egiptoko zibilizazioa sortu zeneko garai horretan sortu baitzen txinakoa ere. Irudiak horixe adierazi nahi du, antzinako Txinatik hasita, gaur egungo Txina ikustera helduko garela unitate honetan.

Hau guztia argitu ondoren, ekar ezazue gelara munduko mapa eta behazazue taldean non dagoen Txina eta baita Euskal Herria ere. Ekar itzazue gogora baita kontinente eta ozeanoen izen eta kokapenak. Gero, ikasle bakoitzak bere unitateko mapatxo horretan adieraz dezala jardueran eskatzen zaiona.

Bukatzeko, munduko mapa horri behatuz, 11. orrialdean agertzen zaien Txinako mapa hori osatzen saia daitezela. Bertan, Txinako hiriburua, eta ezaguna den beste hiriren bat kokatuz, eta nahi izanez gero mendiren bat ere bai.

## **10. Antzinako Txina**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or.*

Gogoratu ikasnorabidera joan-etorria egitea.

Hasteko orrialde horretan dagoen informazioa bakarka irakurtzeko eta osatzeko aukera emango diegu ikasleei. Gero talde handian elkarrizketa sortuko dugu testuak ulertu dituztela ziurtatzeko.

- *Zer da diapositiba bidez adierazten dena bi orrialde horietan zehar?* Ideia nagusia adierazi dezatela, hau da; garaian garaiko Txinako historia adierazten da eta garai bakoitzari buruzko informazio txiki bat ematen da.

- Zer esan nahi du dinastia hitzak? Zer da enperadore bat?
- Non sortu zen txinatar zibilizazioa? Gogora ekarri beste zibilizazio batzuk ere ibaien inguruan sortuak direla. Zergatik sortzen dira ibai inguruetan? Uraren garrantzia azpimarratu.
- Zergatik uste zuten txinatarrek eurak bakarrik bizi zirela munduan?
- Nondik dator kio Txinari bere izena?
- Zer da harresi handia eta zertarako eraiki zuten?
- Ba al dago testu hauetan ulertu ez duzuen hitz edo kontzepturen bat? Hala balitz, argitu itzazue.

## 11. Igarkizunak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 52. eta 53. or.*

Ikasleek arreta handiz irakurri, eta irudiei behatuz gero, orrialde hauetan agertzen diren igarkizunen erantzunak asmatuko dituzte. Irudiek modu integratu batean igarkizunen erantzuna adierazten dute. Beharazi ilustrazioei. Erantzunak igarri ostean, elkarrizketa sortuko dugu hor agertzen diren elementuek Txinarekin izan dezaketen erlazioaz mintzatzeko.

## 12. Igarkizunak asmatzeko sekuentzia

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka/Binaka*

*Materiala: 6. lan-koadernoan 4. orrialdeetik 10.era*

Sekuentzia horretako 4. eta 5. orrialdeak irakurri ondoren, igarkizunak egiteko, binaka jarri ikasleak. Komenigarria da, bikoteak egiteko orduan, berdinen arteko bikoteak osatzea. Nahi adina igarkizun osatu ahal izango dituzte bikoteka, lan-koadernoan hasi eta euren koadernoetan jarraituz. Binaka lan egin ondoren, banaka lan egitea egokia litzateke. Jarduera bukatzean, igarkizunen saioa antolatzea proposatzen dizuegu.

Saioa bukatzean, konparaziozko igarkizunak egiteko sekuentziari dagozkion jarduerak osatu beharko dituzte ikasleek, orain ere bikoteka. Ondoren banaka lan egiteko aukera eskaini. Bukatzean, beste saiotxo bat antola dezakezue igarkizunekin, edo nahi izanez gero, berrikuspina egin eta egoki ikusten dituzuen zuzenketak eginaz (arbelean idatziz, eta denon artean akatsak zuzenduz etab.) edizio lana egin dezakezue, ordenadorean nahiz eskuz, zuen antzezlanerako erabiltzeko egokiak izango baitira. Unitate honetan osatutako igarkizun guztiak bildu eta editatuz gero, liburuxka bat egiteko aukera ere baduzue.

## 13. Erreportajetxoak: terrakotazko soldaduen aurkikuntza

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 54. or.*

Egunkaria irakurtzen dugunean, mota askotariko testuak aurkitzen ditugu: iragarkiak, berriak, erreportajeak... Gutxi dira egunkari osoa irakurtzen duten pertsonak, desinteresagatik edo denbora ezagatik. Normalean titularrak irakurtzen ditugu, mundu zabaleko eta gure inguruko gertakizunen berri izateko. Titularrean

irakurritakoa interesgarria irudituz gero, azpi titularra irakurtzen dugu berri edo erreportaje horri buruzko zerbait gehiago jakiteko, eta gure jakin-mina areagotzen badu, osorik irakurriko dugu. Beraz, egunkariaren irakurketa modu selektiboan egiten dela esan dezakegu eta norberak aukeratzen duela zer irakurri eta zer ez. Adieraz iezaiezue hau ikasleei. Dena den guk orain erreportajetxo osorik irakurriko dugu.

Hasteko tartetxo bat emango diegu ikasleei bakarka irakurtzeko. Irakurtzen hasi aurretik, irakurri ostean bi galdera egingo dizkiegula adieraziko diegu. Bat, zeri buruzkoa den erreportajea, hau da, zein den ideia nagusia. Eta bi, informazio horren inguruko zehaztasunak ematea. Ideia nagusia adierazteko seguruenik titularrean eta azpi titularrean dauden hitzak edo esaldiak erabiliko dituzte, ohartarazi itzazue hortaz. Zehaztasunetara jotzeko orduan berriz, berria paragrafoz paragrafo irakurriko dugu talde txikitik. Talde bakoitzak paragrafo bat irakurriko du, eta taldean, paragrafo horretako ideia ahal duten eta zehatzen osatzen saiatuko dira. Gero, talde handian adieraziko ditugu ideiak eta baita arbelean idatzi ere, modu horretan erreportajetxo honen laburpena izanik.

#### **14. Artelana**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Aurreko jarduera burutu ondoren, dagoeneko hurrek badute aurkikuntza horri buruzko informazioa. Behatu irudiei, liburuetan kontsultatu, etab. Bilatu irudi gehiago eta aurkikuntza harrigarri horren inguruan hitz egin.

*- Esaten dutenez irudi guztiak desberdinak dira eta neurritz errealak. Imajinatzen al duzue zer den aurkikuntza hori? 6.000 soldadu eta euren zaldiak? Enperadore Handiak boterea ere handia zuela iruditzen al zaizue? Zer pentsatzen duzue irudi hauek guztiak eraiki zituen edo zituzten artistei buruz? Kapaz izango al ginateke hainbeste irudi horrelako fideltasunez eraikitzeke?*

#### **15. Buztinarekin lanean**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Unitate honetan hainbat eta hainbat dira adierazpen plastikoaren ikuspuntutik egin beharreko lanak (txotxongilo-panpinak, eszenatokia, dekoratuak, orgatila, makillajea, mozorroa...) baina egoera hau aparta dugu buztinari heldu eta pertsonen (txinatarren, gerlarien...) irudiak eraikitzen saiatzeko. Baloratu ezazue denbora eta baita zuen gelako hurrek aurreko urteetan buztinarekin izan duten harremana ere.

Banatu hurrei buztin puska bana eta utzi beraien moduan nahi duten pertsonaiak eraikitzen. Gorputz osokoak nahiz bustoak izan daitezke.

## 16. Kanta-kantari

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./CDa, 20. pista*

Tarte bat emango diegu ikasleei bakarka abestia irakur dezaten eta saia daitezen abestia ulertzen, gero elkarrizketa sortuko dugu.

*-Zeri buruz hitz egiten du abestiak? Zein esango zenuke dela abestiaren gaia?*

Gero, ikasleek buruz ikasi beharko dutenez abestia, euren ikuskizunean abesteko, gaia landu ahala, aukera dugun bakoitzean, behin eta berriro abesteari ekingo diogu musikarekin batera. Kanta honekin koreografia asmatu eta ikuskizunaren egunean egin dezakete.

Orrialde honetan, abestien CDari eta Musikako lan-koadernoari sarrera ematen dioten ikonoak ikusiko dituzue. Musikako lan-koadernoaren bidez, hizkuntza musikala eta txirula landu ditzakezue.

## 17. Txinatarrak asmatzaile handiak

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Ikasleek orrialde horretako lehenengo agindua binaka osatu beharko dute. Txinatarrak asmatutako hainbat asmakizunen izenak hiztegian begiratu eta definizioa ulertuz, euren koadernoan, euren hitzekin definitu beharko dituzte. Edozein dela lantzen ari garen gaia edo burutzen ari garen jarduera, oso garrantzitsu deritzogu, gelan ulertzen ez diren hitzak hiztegian bilatzeko ohitura sortzeari. Horretarako irakurketa edo jarduera bera, eten egin behar badugu ere, beraz, egoki ikusten duzuen guztietan, esan ikasleren bati begiratzeko hiztegian hitz horren esanahia eta besteei irakurtzeko.

Behin jarduera burutua dagoenean, taldean, ikasleek idatzitako definizioak irakurtzeari ekingo diogu, eta guztien artean definizio ahalik eta egokiena aukeratu/osatu ostean, "hitzberrilandia" rako fitxak prestatuko ditugu.

Gero, hurrengo jardueran adierazten den bezala, asmakizun hauek gizarteari ekarritako aurrerapena baloratuko dugu, onurak eta baita kalteak ere aipatuz.

Jarraian, konpas bat eraikitzekeo prozesua adierazten duen testua irakurriko dugu, zein material behar dugun jakiteko eta material horiek momentuan eskuratzeko aukerarik ez baldin badugu, hurrengo egunerako norik ekarriko dituen erabakiko dugu.

## 18. Elkartasun jolasa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.*

Beti bezala, elkartasun jolasekin egiten dugun prozedura bera jarraituko dugu:

Hasteko elkartasun jolasa zer den eta zertan datzan. Ondoren, jolasa bakarka irakurri eta taldean beharrezkoak diren argibideak eman argi geratu dadin. Elkartasun jolas honen helburua talde kohesioa lantzea da. Arreta eskatzen du jolas honek, norberaren gorputzaren oreka kontrolatzea eta besteren mugimenduekin koordinatzea, helburu bakar eta bera lortzeko asmoz, aulki-gurpila osatzea. Adierazi hau ikasleei, jolasaren eginkizunaren kontzientzia izan dezaten. Gero, jolasari ekin. Azken urratsa elkarrizketa da, beraz, hona hemen adibide bezala aukerako galdera batzuk.

- Zaila izan al da lurrera jausi gabe mantentzea? Zenbat aldiz jausi gara helburua lortu dugun arte? Nolako sentimenduak izan dituzue jolasten ari zineten bitartean? Gozatu al duzue jolas honekin? Entrenamendu saio bat baino gehiago egin ostean, errazago suertatu zaizue helburua lortzea? Zergatik izango ote da? Zein ikasbide atera dezakezue jolas honetatik?

## **19. Orgatila eraikitzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.*

Talde handian orgatila eraikitzeke zer material behar dugun irakurriko dugu eta baita azalpen-testua ere. Beharazi hurrei, azalpen-testu askotan, zehaztasuna oso garrantzizkoa dela gauzak ondo ateratzea nahi badugu. Adibide bezala pastel bati kilo erdi azukre, edo eta kilo t' erdi botatzen badiogu zer gerta daitekeen galde dezakezue. Beraz, lana ere ahal dugun zehaztasun handienarekin egiten saiatuko gara oraingoan. Talde txikiak osatuko ditugu eta orgatila eraikitzeke behar ditugun materialak nork ekarriko dituen erabakiko dugu. Behin materiala gelan dugula, talde txikitara orgatila eraikitzeke ekingo diogu. Okumea mozteko orduan ikasle batzuk zailtasunak izaten dituzte, agian irakaslearen laguntza beharko dute.

Orgatila eraikitzeke gain, ikuskizunerako txinatarrek jakiak garraiatzeke erabiltzen zituzten otarrak zintzilik dituen banbu-kanaberaren antzekeak egin ditzakezue (ikus unitatearen azalean agertzen den irudia). Makila bati bi otarre jarri zintzilik, sokaz lotu, eta prest izango duzue banbu-kanabera otarrekin. Ikuskizunean, otar hauek hainbat jakirekin bete eta apain ditzakezue.

## **20. Olerki txinatarrak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or./ CDa, 22. pista*

Talde handian, Mei Liren izena txineraz idatzita agertzen den koadroa behatu ondoren, hark esandakoari erreparatuko diogu, alegia, txinatarren idazkera ideografikoa dela. Galdetu iezaiozue ikasleei ea euren ustetan zer esan nahi duen horrek. Ondoren, adierazi eurek ere txikitara, Haur Hezkuntzan zeudenean, hasiera batean txinatarrek bezala idazkera ideografikoa egiten zutela. Jarraian, azal iezaiezue horren esanahia, hau da, ideia edo objektuaren ezaugarrien adierazten dituzten ideogramak erabiliz idazten zutela.

Gero, talde handian hor dauden bi olerkiak "irakurtzeke" ekingo diogu. Lehena txinatarra da, beraz, nekez irakurtzeke aukera izango dugu, hala ere, idazkerari dagokion beste mota bateko behaketa egin dezakegu, ideogramei begiratuaz, ea berdina diren bi aurkitzen ditugun, antzekeak direnak... Jarraian, Joxan Ormazabalena olerkia irakurriko dugu eta gero, talde handian, bi idazkera hauen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ahoz adierazten saiatuko gara. Adibidez: berdintasunak; biak dira olerkiak, ezberdintasunak; txinatarra idazkera ideografikoan dago eta euskal olerkia idazkera alfabetikoan.

Jarraian, CDko 22. pistan aurkituko duzuen musika entzuteke ekingo diogu. Musika hau txinatarra da. Galde iezaiezue ikasleei ea noizbait entzun duten horrelako musikarik, gustuko duten... Bukatzeko olerkien saiotxo antolatuko dugu. Ikasle

bakoitzak olerki bat, musikaz lagunduta irakurriko du. Liburuan dagoena, berehala irakurgaietan aurkituko dituztenak, zein eurek aukeratutako beste libururen batekoa, edo nahi duten olerkia izan daiteke. Irakasleak eredu gisa, liburuan agertzen den olerkia irakurri musikarekin batera, eta eskatu arretaz entzuteko eta arreta berezia jartzeko, batez ere, erabilitako baliabide prosodikoei, hau da, intonazioa, erritmoa, arnas pausaldiak, intentsitatea (hor dagoen zerbait nabarmendu nahi denean, ozenago irakurriaz, astiroago...).

Horrelako jarduera batek entsegu asko behar izaten du, horregatik, animatu ikasleak etxean musika batekin batera entseatzeko. Seguraski, buruz ikasiko dute olerkia, hala balitz, emanaldirako primeran etorriko zaizkie. Gelan ere, entsegu bat baino gehiago egin dezakezue, ikasleek banan-banan olerkia erreztatuz eta ondoren, ikusleagoak euren aldetik zein zuzenketa egin dezakeen iradokiz.

## **21. Olerkiak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 55. eta 56. or.*

Ikasleek tarte bat izango dute irakurgaietako olerkiak irakurtzeko eta ondoren, talde handian olerkien gaiari buruz hitz egingo dugu, ea zein den olerki hauen gaia, zein hitz joko erabiltzen dituzten, zein den gustukoena izan dutena, etab.

Olerkien behaketan/irakurketan trebatzen ibili direnez, ikuskizunean errezital ederra egin dezakezue. Olerki hauek laburrak direnez, irakurketaren kalitatea landuko dugu: ikasleek behar den doinua, intonazioa eta sentimenduak eman behar dizkiote irakurketari. Ez da beharrezkoa buruz ikastea, baina bai ondo esatea. Ez ahaztu musika, eta posible bada, argia ere erabiltzea.

## **22. Olerkiekin jolasean**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 6. lan-koadernoan, 11. eta 12. or.*

Ikasleek bakarka nahiz binaka lan-koadernoan dituzten jarduerak eginez beren olerkitxo(a) osatuko dituzte. Olerki hauek baita ere, ikuskizunerako erabili ahal izango dituzte berrikuspen lana egin eta folio gorrietan (aurrerago argituko da kolorearen zergatia) kopia ondoren. Hala ere, momentuz berrikusketan geldituko gara, eta uea helduean egingo dute edizio lana.

## **23. Filosofia txinatarra eta erranak erran**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.*

Hasteko, talde handian, orrialde horretan egin beharrekoa irakurri eta argituko dugu. Gero, talde txikian, ikasleek orrialde horretan dagoen papertxo antzeko horretako pentsalari txinatarren erranak banan-banan irakurri beharko dituzte. Bat irakurri ondoren, hari buruz mintzatuko dira; zer esan nahi duen, zein egoeratan erabili daitekeen... Jarduera hau burutzeko komenigarria da, talde handian, eredu gisa lehen erranarekin egitea goian aipatutakoa. Eman iezaizkiezue ikasleei bakoitzaren inguruan hitz egiteko minutu batzuk, gero, talde handian aipatuko ditugu talde txikian

esandakoak. Gero, binaka jarrita, euskal esaeren inguruan ere gauza bera egingo dute. Jarraian taldean hitz egingo dugu egindako hausnarketen inguruan eta baita Maiderrrek eta Xabierrek esandakoaz ere. Xabierrek aipatutako errana oso ezaguna izan arren ez da txinatar batena, Greziar batena baizik, Sokratesena da.

Bukatzeko ikasleek erran guztien artean bat aukeratu eta erran horrek adierazten duen egoera antzeztuko dute.

#### **24. Txinako hizkuntzak eta dialektoak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.*

Ikasleek bakarka orrialde horretan agertzen den lehenengo jarduera irakurri eta erantzuteko aukera izango dute. Ondoren, talde handian denon artean erantzunen inguruan mintzatuko gara, hau da, zer den euskalkia, zer aldaera dauden, zer esan nahi duen dialekto hitzak etab. Hitz hauen esanahia argitzeko hiztegian begiratu ditzakezue, etxean galdetzeko esan, edota entziklopedian begiratu. Euskalkien mapa (Berriak argitaratutakoa: Koldo Zuazo) eskura edukitzea ere interesgarria izan daiteke.

Gero, denon artean, orrialde horretan adierazten den taula horretako datuak osatuko ditugu eta arbelean ikasle kopuruaren arabera zirkunferentzia banatzen saiatuko gara. Zuen gelako ikasle kopuruaren arabera zaila gerta dakizueke zirkuluaren banaketa egitea. Beraz, hobe hori aurreikusi eta gutxi gorabeherako zirkunferentzia osatu eta ikasleei horren inguruko azalpenak ematea.

Argitxoren globoari erreparatuz, ez legoke gaizki ikasleen euskararen erabilpenari buruz hitz egitea taldean, zer gerta dakioken gure hizkuntzari erabili ezean, zenbatek erabiltzen duten eguneroko bizimoduan eta zenbatek ez, hau da, nolabaiteko hausnarketa soziolinguistikoa egitea.

#### **25. Araban bagare**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa. 21. pista*

Euskalkiak hizpide ditugula, tradiziozkoa den euskal abesti hau ikasleei diktatuko diegu (zeuek ikusi zenbateko zatia) euren koadernoan idatz dezaten. Gero, ikasle bakoitzak idatzitakoa irakurriz, berrikuseta eta zuzenketak egin beharko ditu. Adieraz iezaiezue “h”, “s”, “z” edo “x” duten hitzekin adi ibiltzeko eta zalantzarik balute hiztegian begiratzeko nola idatzi behar diren modu zuzenean.

Bukatzean, abestiaren mezuari buruz mintzatuko gara, adierazten duenaz. Honen ostean, musikarekin batera kantatzeari ekingo diogu eta buruz ikasten saiatuko gara.

#### **26. Ipuin literarioa: Nire arreba Aixa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.*

Hasteko talde handian, “Nire arreba Aixa” ipuina aurkeztuko diegu ikasleei eta azala eta atzeko azalaren behaketa egin ondoren, ipuina zeri buruzkoa izango den iragartzeari ekingo diogu. Gero, ikasleek tartetxo bat izango dute, hurrengo jarduerako hitz-errotan hizpide izango denaz jabetzeko. Ipuin literario hau banaka irakurtzeko aukera emango diegu ikasleei, etxera eramanez, edo gelako momentu jakin batzuetan irakurriz.

## 27. Hitz-errota

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21.or.*

Ikasle guztiek ipuina irakurrita dutenean hitz-errota antolatuko dugu, familia izanik gaia. Gai honek sentsibilitate handia eskatzen du, hainbat familia mota aurkituko baititugu gure ikasleen artean. Hainbat familia mota daudela ikustaraztea, eta familiaren funtsezko ezaugarria, maitasunean eta elkartasunean bizitzea dela da guk azpimarratu nahi dugun ideia, formari horrenbeste begiratu gabe.

Lehenengo zikloko bigarren mailan familia gai bezala landu zuten (familia motak...) Aukera baduzue, interesgarria litzateke gai honi dagokion unitateari begiradaxo bat ematea.

Hitz-errota nola egin dugu behatuko dugu oraingoan.

*- Dagoeneko makina bat aldiz aritu zarete talde handian bilduta elkarrizketan eta eztabaidan. Oraingo honetan, talde elkarrizketan nola aritzen zaren aztertuko duzue. Horretarako:*

*- Binaka jarriko zarete.*

*- Lehendabizi, bikote bakoitzeko kide batek hartuko du parte hitz-errotan.*

*- Beste lagunak bikotekidearen jarduna behatuko du, besteak beste irizpide hauei buruzko oharra jasoz: Parte-hartzea prestatu du? Parte hartu du? Elkarrizketarako arauak bete ditu? Egoki hitz egin du?*

*- Lehen saioa bukatzean, behatzaileak lagunari bere parte-hartzeari buruzko oharra eta iritzia azalduko dizkio.*

*- Bikotekideen artean zereginak elkartrukatu eta prozesua errepikatuko da.*

## 28. DVDA

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: DVDA*

Proiektzioan Txinaren inguruko hainbat irudi ikusiko ditugu eta arazo demografikoaren ideia ere aipatuko da.

## 29. Txina gaur egun

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or./Material osagarria*

Egin ikasnorabidera joan-etorria.

Hasteko, talde handian, pertsonaiek esandakoa irakurri eta izandako gaizki-ultuari buruz mintzatuko gara: demografia eta demokrazia. Itxuraz oso antzekoak diren baina esanahia aldetik zeharo ezberdinak diren bi kontzeptu hauen esanahia argituko dugu lehenbizi. Lehenengo mailako bosgarren unitatean, Grezia landu zutenean, demokrazia zer zen ikusi zuten, gogora ekar iezazue. Aukera polita duzue taldean, hitz hauen esanahia hiztegian begiratzuz argitzeko.

Ondoren, ikasleek bakarka klipeko informazioa irakurri eta material osagarriko grafikoak osatuko dituzte hor agertzen diren datuekin. Bukatzean, grafikoa agertzen den



orria hor itsatsiko dute eta elkarrizketa sortuko dugu talde handian. Grafikoen erabilpenaz, adierazkortasunaz (informazioa era grafikoan ikustea lagungarria den edo ez), osatzean izandako zailtasunez etab. mintza zaitezte taldean. Gero demografiak hitz egin ezazue.

*-Grafikoak behatuaz, non esango zenukete dagoela biztanle kopuru handiagoa? Alde handia al dago bi herrialdeen arteko biztanle kopuruen artean? Zer esan nahi du horrek, Txinan, hemen baino jende gehiago bizi dela? Nabarituko ote da hori bertara joanez gero, hau da, nola imajinatzen dituzue kaleak, jendez gainezka eta toki faltan?*

*- Beha itzazue orain irudiak, non dirudi dagoela jende gehiago? Euskal herriak duen hedadura hartuko bagenu Txinako mapan, zer uste duzu, jende gehiago legokeela bertan, berdina edota gutxiago? Zergatik izango ote da?*

Kontua da, Txinak Euskal Herriak baino hedadura handiagoa duela, beraz, proportzioan biztanle kopuru antzekoa bizi dela metro karratuko. Adieraz iezaiezue hau ikasleei. Ondoren, klipeko informazioaren inguruko elkarrizketa sor ezazue, zer iritzi duten lege horri buruz, horrelako legerik Euskal Herrian ezartzearen aldeko edo kontrakoak diren, justifika dezatela esandako guztia.

### **30. Mendiak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or./Material osagarria*

Euskaldun askoren ezaugarria da mendizaletasuna. Euskal herriko mendiak igotzearekin nahikoa izan ez, eta euskaldun asko munduko mendirik garaienak konkistatu nahian Himalaiakoak igotzera ere joan izan dira. Eta nola ez, garaiena igo gabe ezin utzi, Everesta. 21 aldiz zapaldu izan dute euskaldunek Everesta. Besteak beste, hurrengo hauek ditugu ezagunenak: Everest a igotzen lehen euskalduna Martin Zabaleta izan zen; munduko lehenengo bi anaiak, Iñurrategi anaiak; euskal herriko lehen neska, Edurne Pasaban; eta, oxigenorik gabe igo zuena eta bi aldiz igo duena, Juanito Oiarzabal.

Talde handian irakur ezazue orrialde horretan dagoen informazioa eta ondoren, egin ezazue elkarrizketa hurrengo galderen inguruan.

*- Ezaguna al zenuten Himalaia mendikateko mendiren bat? Non entzun izan duzue haren izena? Zein da munduko mendirik altuenaren izena? Ba al dakizue euskaldun askok igo izan dutela? Ba al dakizue igo duen norbaiten izena?*

*- Eta Euskal Herriko mendiak ezagunak al dituzue? Igo al duzue hauetariko baten bat? Noiz? Gustuko al duzue mendian ibiltzea?*

*- ...*

Elkarrizketa bukatzean, ikasle bakoitzak liburuko galderak erantzun beharko ditu eta baita material osagarriko grafikoak osatu eta orrialde horretan itsatsi ere. Bukatzean, denon artean, ateratako ondorioen inguruan mintzatuko gara, hau da, Himalaia mendikateko mendiak Euskal Herriko Pirinioetako mendiak baino askoz ere garaiagoak direla.

### 31. Comparing rivers in china and the basque country (Euskal Herriko eta Txinako ibaiak aldera ditzagun)

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. eta 25.or./Material osagarria*

Jarduera honetan, mendiekin egin dugun bezala, ibaiak alderatzen saiatuko gara. Euskal Herriko eta Txinako ibairik luzeenak munduko mapan, edota unitatean ageri den horretan, bilatu, eta grafikoen bidez haien arteko konparaketa egingo dugu, material osagarriaren laguntzaz.

As always, start your session by showing interest in what the pupils have been working on. If it always the same volunteers who speak, give them a bit of time to prepare what to say to you (or tell them in a previous English class that you are going to ask them to speak)

*- You've been working on China. Can you show me what you have been doing? What do they eat in China? What did they invent? What does the writing look like? Can you say any thing in Chinese? I remember "Ni hao" from Txanela 2. It means hello.*

*- So where's China? Can you show me on the map? And where's the Basque Country.*

*(If there is no large wall map, refer to the map on page 10)*

*Wow. It's very big. Do lots of people live there? (1,300 million) And do they have big mountains (YES) higher Talde handianan the Basque Country? (YES) How high (Everest 8,846m)*

*So you have been comparing mountains in China and the Basque Country. What about rivers? Do you Talde handianink China will have long rivers too? (YES) How long?*

*What is a big river in the Basque Country? (the pupils will most probably only know the local river, so use Talde handianat as a reference) e.g. Is the Nerbioi a big river?*

Take the book and turn to page 24.

*- Let's look at our English page. Here we have the maps of China and the Basque Country. Look at the map of China. Which is the longest river? (the Yangtze) Yes, it's called Chang jiang in Chinese. In English it's also called the Blue River (Ibai Urdina in Basque).*

*- And in the Basque Country? (the Ebro)*

*- Here they don't look very different. But if we look at a real map, (on the wall or on page 10) we can see that China is much bigger.*

*- How long is the Yangtze? (6.300 km) And how long is the Ebro (207km). So let's write here about the longest rivers (Take their suggestions and help them formulate them) "the longest river is... It's ....Km."*

*-That's a big difference, isn't it? How long is our nearest / local river? And which is the shortest river in the Basque Country? (Aturri, only 30 kms).*

Take the 'Material osagarria' book. Let's take the page from our material book.

- *What does it say, Changjiang and Aturri. Is that the longest river in the Basque Country? No, it's the shortest one. Oh, that's a mistake! Let's put the longest one, which is, the Ebro) We are going to compare the Yangtze (Changjiang in China) and the Ebro in the Basque Country on this graph.*

- *Look at the length of the rivers in your book. How many kilometres is it? Now with a pencil, mark the rivers on the graph. Try by yourselves. Now check with your partners.*

Go around checking how they are getting on. Draw a general conclusion about what they found out. Chinese rivers are very, very long!

Don't forget to tell your tutor what you found out about Chinese rivers!

### **32. Turismoa Txinan**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.*

Orrialde horretan agertzen diren diapositibetan, Txinan ezagunak diren hainbat elementu agertzen dira. Ikasleek talde txikitan, hauei buruzko informazioa bilatu beharko dute. Zer diren eta zergatik duten horrenbesteko garrantzia Txinako kulturaren...

Informazio hori toki ezberdinetan bilatu dezakete (DVDan, interneten, liburuetan, etxean galdetuz...) Txoko zurian ziurrenik izango dute honi buruzko informazioa. Informazio bilaketa eta aukeraketa talde txikitan egingo dute. Jarduera honen helburua, informazioa bilatzea, aukeratzea eta ahoz adieraztea da. Horretarako hainbat urrats eman beharko dituzte, gure laguntzarekin, eta gainera lan hori burutzeko denbora ere beharko dute. Hau da, informazioa hainbat tokitan bilatu, irakurri, aukeratu, garrantzitsua dena apuntatu folio batean, idatzitakoa ondo ulertu, eta bukatzeko, informazio hori ahoz adierazi beharko diote gelako kideei. Ahoz adierazitako informazio hori ez da zertan oso luzea izan, kontua da, zehatza eta argia izan behar duela. Adieraz iezaiezue hau ikasleei.

Ikasleak ohitu egin behar ditugu, batetik informazio bilaketan eta aukeraketan eta bestetik informazio hori euren hitzekin jendaurrean ahoz adierazten. Jarduera honetan, azken emaitza besteko garrantzia du prozesuak berak, talde lanak eta lanaren prestaketak berak. Izan kontuan!

### **33. Turismoa Euskal Herrian**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.*

Hasteko, ikasleei tartetxo bat emango diegu orrialde horretan agertzen dena irakurtzeko. Gero, talde handian elkarrizketa sortuko dugu, diapositiba oinen esanahia argitzeko, hau da, turismo mota bakoitza zertan datzan eta zein ezaugarri dituen. Behin kontzeptu horiek taldean argituta, banaka, orrialde horretako jarduerak osatzeari ekingo diote ikasleek. Bukatzean, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, batetik galderen erantzunen gainean hitz egiteko, eta bestetik, ikasle bakoitzak zein turismo mota duen gustukoaren adieraz eta justifika dezan. Euskal Herriko zein toki bisitatu dituzten... aipatzea ere ondo legoke.

### **34. Ipuina irakurri aurretik**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.*

Irakurgaietako ipuina aitzakia, taldean, hainbat gai izango ditugu hizpide, pertsonen itxura eta hauen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak, itxura eta kultura jakin batenganako aurreiritziak, eta, etorkinak eta lekualdatzeak. Elkarrizketan gai hauei guztiei buruz hitz egin ondoren, ikasle bakoitzak bere unitateko jarduerak osatuko ditu.

### **35. Ipuina: Yonghzu**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 57. orrialdetik 61.era*

Ikasleek bakarka, irakurgaietako liburuan duten Mitxel Muruaren “Yongzhu” ipuina irakurriko dute. Eman iezaiezue denbora ikasleei ipuina lasai eta nahi beste aldiz irakurtzeko, nahi izanez gero, gelan irakurtzeaz gain, etxera ere eraman dezakete liburua berriz ere irakurtzeko.

### **36. Ipuina irakurri ondoren**

*Lan egiteko era: Taldet txikian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Talde txikitan, ikasleek, orrialde horretan agertzen diren hainbat kontzeptu argitu beharko dituzte. Horretarako behar izanez gero, hiztegian begiratu ditzakete hor agertzen diren hitzak eta taldean eztabaidatuz eta adibide zehatzak jarritz, hauen esanahia argitu. Ohar bezala esango dizuegu, hainbat tokitan tuntun-padera esamoldea erabiltzen dela neska tuntuna dela adierazteko eta mutilen kasuan berriz, tonto-lapikoa. Ondoren, ikasleek bakarka, orrialde horretako jarduerak burutuko dituzte. Bukatzeko, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, jardueretan galdetutakoaren inguruan gure iritzia emateko eta justifikatzeko.

### **37. Antzerkia prestatzen**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: 6. lan-koaderno, 13. orrialdetik 17.era*

Ikasleek, binaka, 13., 14. eta 15. orrialdeetako jarduerak irakurri eta osatu beharko dituzte. Jarduera hauek egiteko, ikasle bakoitzak ipuinaren fotokopia bat beharko du, jardueretan agintzen zaiona bertan azpimarra eta idatz dezan.

Gero, talde txikitan jarriko dira eta ikuskizunean antzeztuko duten istorioa bilatu (Yongzhu-ren ipuina edo barruko kondaira izan daitezke aukeretako batzuk) edo asmatuz, haren gidoia idazteari ekingo diote. Baita erabaki ere, txotxongilo edo pertsonen bidez egingo duten. Ipuinaren aukeraketa irakaslearen laguntzaz egitea komeni da.

Bukatzeko, ikasleek, 16. eta 17. orrialdeetan agertzen diren jarduerak burutuko dituzte bakarka nahiz binaka. Jarduera hauen bidez, aditza orainaldian eta lehenengo eta hirugarren pertsonan lantzeaz gain, euren ikuskizunerako aurkezpenetarako ereduak izango dituzte. Jarduera bukatzean, euren pertsonaiei buruzko aurkezpenak idaztera anima itzazue eta baita aurkezpen horiek entseatzera ere.

### **38. CD-ROMa; aditza**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: CD-ROMa*

Gogora ezazue, CD-ROMean hainbat direla aditza lantzeko dituzuen jarduerak, ikasleek banaka nahiz binaka osa ditzaketenak.

### **39. Txinatarrek, euskaldunak bezala, sukaldari handiak!**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or./Irakurgaiak 3, 62.or.*

Talde handian, txinatarrek janaria zentzumen guztiekin gozatzen dutela adierazten duen azalpen-testutxo irakurriko dugu, eta ondoren, elkarrizketa sortuko dugu. Hasteko azalpen-testuari buruz hitz egingo dugu.

- *Erreparatu izenburuari. Zergatik jartzen ote du txinatarrek euskaldunak bezala sukaldari handiak direla?*
- *Irakurri dugun testu hau, zein motatakoa dela esango zenukete, informazioa emateko testua, portaeran eragitekoa, argudio-testua edo testu ludikoa (ipuina, olerkia...)?*
- *Zein esango zenukete dela testu honetako ideia nagusia, hau da, laburki, zeren inguruan hitz egiten du?*
- *Eta zein izango lirateke ideia osatzen edo hobeto ulertzen laguntzen duten xehetasunak edo bigarren mailako ideiak?*

Ondoren, gure jateko ohituren inguruan mintzatuko gara.

- *Guk zentzumen guztiekin jateko ohitura al dugu? Garrantzia ematen al diogu jakien prestaketari edota jatea besterik ez dugu helburu? Gustuko al duzue janariak prestatzea? Zein janari mota prestatzeko ohitura duzue? Janaria prestatzearekin batera garrantzirik ematen al diezue apainketa lanei? Noiz gozatzen duzue gehiago, zuek prestatutako janaria jaten edo norbaitek egindakoa jatean? Zergatik? Non uste duzue egon daitekeela aldea?*

Bukatzean, talde handian irakurgaietako errezeta irakurriko dugu eta ikasleak animatuko ditugu errezeta hori, etxean, etxekoen laguntzarekin, prestatzera eta fruitu karamelatuak gelara ekartzera, txinatarrek bezala, gelan zentzumen guztiekin jan ditzagun. Jan ostean, sor ezazue elkarrizketa esperientziari buruz mintzatzeko.

### **40. Sukaldaritza eta osasuna**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or.*

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei, bi orrialde horietan zehar agertzen dena irakurtzeko eta ulertzeko. Gero, talde handian, irudietan eta azalpen-testuan agertzen den informazioaren inguruan mintzatuko gara, jarduerak osatuz. Bi orrialde horietan zehar, txinatarrentzat osasunaren hiru oinarriak zeintzuk diren adierazten zaigu:

akupuntura, dieta orekatua eta sendabelarren erabilpena. Bada, taldean horiei buruz esaten dena ulertzen, eta informazio hori, bakoitzaren ekarpenekin, zein liburutuan bilatu dezakegun informazioarekin, osatzen eta argitzen saiatuko gara. 31. orrialdeko azken jarduerari dagokionez, utz ezazue jarduera hau etxerako lan bezala, ikasleek hor agertzen diren sendabelarrei buruzko informazioa bila eta osa dezaten, etxekoei galdetuz edota liburuetan begiratzuz.

Azpirarria ezazue orrialde bukaerako oharraren garrantzia, sendabelarrak ezin direla nolnahi erabili, alegia.

#### **41. Sendatzen duen artea**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or./CDa 22. pista.*

Talde handian, irakur eta argitu ezazue Tai Chi izeneko txinatar artearen azalpen-testua. Bukatzean, gelan eta talde handian, CDan aurkituko duzuen txinatar musikarekin batera imita itzazue unitatean bertan ageri den irudiko posturak eta erlaxapen jarduera egin ezazue. Bukatzean, sor ezazue elkarrizketa esperientziaren inguruan.

*-Gustura egon al zarete? Baliagarriak iruditzen al zaizkizue horrelako erlaxapen jarduerak? Noiz eta nola praktikatu beharko genituzke?*

Ekar itzazue gogora hirugarren unitatean egindako erlaxapen jarduerak eta konpara eta balora itzazue bat eta beste. Nahi izanez gero, erlaxapen jarduera hauei leku egin diezaiekezue eta gelako jarduera bezala landu eta praktikatu astean behin, birritan edo agian egunero egoki ikusten duzuen une edo orduan.

Gelan bertan arte horiek ezagutzen dituzten ikasleak egon daitezke. Horrela bada interesgarria izan daiteke dakitena besteei erakustea saio txiki bat antolatzeko.

#### **42. Txinako jaialdiak eta ospakizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Hasteko ikasleek tartetxo bat izango dute orrialde horretan agertzen den azalpen-testua irakurtzeko eta ulertzeko, gero, talde handian irakurriko dugu eta irakurritakoaz mintzatuko gara, ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatuz eta adieraziz. Gero, orrialdearen bukaeran dauden bi galderen inguruan mintzatuko gara eta bukatzean, ikasle bakoitzak bere erantzunak idatzi beharko ditu unitatean bertan. Ondoren, ortografiari behatzeko, hurrengo jarduera egitea proposatzen dizuegu, testu hori bera diktatu ahala beren koadernoetan zuzen idatz dezatela. Beraz, ikasleek bakarka euren koadernoetan testu horretan agertzen diren hitzak sailkatu eta idatzi beharko dituzte hurrengo irizpideen arabera:

- Zein hitz idazten diren “s” letraz, zein “z” letraz, zein hitzek duten “x” letra eta zeintzuk idazten diren “h” letraz.
- Zein hitz dauden letra larriz idatzita. Zergatik dauden letra larriz idatzita.
- Zein hitz agertzen den kakotxen artean. Zergatik.

Bukatzean, ikasle bakoitzak unitatea aurrean duela berrikusketa eta zuzenketa lanak egin beharko ditu.

### 43. Nien piztia

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak, 63. or.*

Txinako urte berriko jaialdian hainbat dira tradizioz egiten diren ekintzak. Arrazoi horietako batzuk zein diren jakiteko, ikasleek bakarka, *Nien piztia* txinatar kondaira irakurriko dute. Gero, talde handian, irakurketa horretako gaia eta gaiaren inguruko xehetasunak identifikatzen saiatuko gara. Bukatzean galdera hau egingo diegu ikasleei:

*-Norbaitek galdetuz gero zeri buruzko den “Nien piztia” kondaira, nola adieraziko zeniokete laburki?*

Kondaira hau ere, ikuskizunean antzez dezakezue.

### 44. Elkartasun jolasa

*Lan egiteko era: Talde handian*

Talde handian elkartasunez jolasteko jarraitu beharreko urratsak jarriko ditugu martxan: gogora ekarri elkartasun jolasa zer den, jolasa azaldu, jolasteari ekin eta ondoren esperientziari buruzko elkarrizketa izan.

*Jolaskideek begiak itxiko dituzte eta irakasleak jolaskide bi aukeratuko ditu “Nien piztia”-ren rola egiteko, gainontzeko guztiak txinatarrak izango dira. Bi piztia hauek bereizgarri bat jarriko dute besoan, besoko gorri bat adibidez. Bereizgarria jarrita dutenean, irakasleak begiak irekitzeko aginduko die jolaskideei eta orduan hauek, piztiak nortzuk diren detektatu beharko dute eta baita hauengandik ihes egin ere. Piztia batek jolaskide bat ukituz gero, piztiaren haginkadaren seinale horren eraginez, jolaskideak mina sentitu eta eskua haginka egindako tokian jarrita duela korrika egiten jarraitu beharko du, piztiak berriro ez diezaion hozka egin. Piztiak sorbaldan edo bizkarrean hozka eginez gero, jolasa ez da hain dibertigarria izango, baina hankan eginez gero, korrika egiteko arazoak izango ditu eta askoz ere dibertigarriagoa izango da jolasa gure gorputzeko bi tokitan haginka egiten digutenean. Hiru aldiz haginka egin dioten jolaskidea piztia bihurtuko da. Jolaskide guztiak piztia bihurtzen direnean, jolasa bukatu egingo da.*

Hurrengo galderen inguruan sor dezakezue elkarrizketa.

*-Dibertigarria izan al da jolasa? Bi aldiz haginka egin dizuetenean, zailtasunak izan al dituzue korrika jarraitzeko?*

*- Zein rol izan duzu gustukoaren, piztiarena edo txinatarrena, hau da harrapatzailea edo harrapakinarena? Piztia izandakoan nolako sentimendu edo emozioak sentitu dituzue? Eta txinatarrak izandakoan?*

*- ...?*

#### **45. Faroltxoak egiten**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Material osagarria.*

Ikasleek bakarka, material osagarrian adierazitakoa jarraituz, faroltxoak egiten ikasiko dute. Material osagarriko orriak erabiliaz faroltxoak egiten treba daitezen, agian, fotokopiatu egin beharko dituzue orri horiek. Behin ikasi ondoren, txarolezko paper gorria erabiliz egin ditzakezue eta zuen ikuskizunean erabili apaingarri gisa.

#### **46. Bertsoa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 64. or./6. lan-koaderno, 18. or.*

Ikasleek banaka irakurgaietan duten bertsoa irakurriko dute eta taldean abestu ondoren, lan-koadernoko jarduerak burutu beharko dituzte banaka. Bukatzean, koplaren egituraren inguruan mintzatuko gara:

-Kopla batek lau lerro ditu. Bigarren eta laugarren lerroen bukaeran, oina doa. Eta bi oin horiek errimatu egin behar dute, hau da, azken silaba berdina edo oso antzekoa izan behar dute. Kopla batek bere lau lerro horietan berezko nortasuna du.

Lan-koadernoan osatutako azken kopla hori, edo nahi izanez gero denon artean asmatutako koplak, papertxo gorrietan kopia ditzakezue eta zuen ikuskizunean abestu.

#### **47. Dantza, janzkera eta makillajea**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. eta 35. or.*

Hasteko tarte bat emango diegu ikasleei bi orrialde horietan agertzen dena irakurtzeko eta osatzeko. Gero, talde handian irakurriko ditugu testutxok. Irakurri ahala, gure ikuskizunean, antzerki bidez edo txotxongilo bidez aurkeztuko dugun antzezlaneko pertsonaien janzkera eta makillajeari buruzko ideiak hartu eta arbelean apuntatuko ditugu.

Txinako makillajea aitzakia, Euskal Herriko koloreek adierazten dutenari buruz mintzatuko gara, aukera izanez gero, koloreak adierazpide bezala erabiltzen dituzten esamoldeak eta esaerak bilduko ditugu eta erranak erranekin batera kartulina batean jarri.



#### 48. Entzunaldia

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, 23. pista.*

Ikuskizunaren egunean, agertokira ateratzeko, aurkezpen-dantza modura, Tchaikowsky-ren “El cascanueces”-eko “*Dantza txinatarra*” erabiltzea proposatzen dizuegu. Talde handian koreografia txiki bat asma dezakezue, baina ezertan hasi aurretik, gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu.

#### Gure konpositoreen txokoa

Hasteko elkarrizketa sortuko dugu izenburua eta egileari buruz hitz egiteko. Izenburuari erreparatuz iragartzen hasiko gara.

*- Nola uste duzue izango dela musika honen izaera? Zein erritmo izango du nagusi, oso arina (Vivace), arina (Allegro), normala (Andante), motela (Lento)? Eta intentsitate aldetik, gogorra (Fuerte) edo suabea izango da (Piano)? Edota tartekatuko ditu hainbat intentsitate?*

*- Zein instrumentu erabiliko dituztela uste duzue? Nota luzeak izango ditu edo noten iraupena laburra izango ote da? Adieraz dezatela.*

Iragarpen guztiak egin ostean, isilean eta giro lasai eta ederrean, obra entzuteari ekingo diogu. Gero, gure iragarpen eta obraren benetako izaeraren arteko aldean inguruan hitz egingo dugu. Ondoren, egileari buruz mintzatuko gara:

*- Egilea Tchaikowsky da. Ezagutzen al duzue? Nongoa da? Ezagutzen al duzue bere beste obraren bat?*

Bila ezazue egileari buruzko informazioa. Argazkia eta biografiaz gain, obrari buruzkoa ere bila ezazue, eta ondoren, jar ezazue “Gure konpositoreen txokoa”.

Tchaikowsky, Errusiako Urales zonaldean aurkitzen den Wotkinsk herrian jaio zen 1840. urteko maiatzaren 7an. Herrialde horretako konpositorerik handiena eta ezagunena da, bere obrei esker, berak eman baitzion Errusiako musikari unibertsalitatea eta prestigioa. Hainbat sinfonia, poema sinfoniko, kontzertu, kamara musika eta opera dira ezagunak bere lanen artean. Ezin aipatzeke utzi bere hiru Ballet, hiru maisulan: “*Zisneen lakua*”, “*Eder lotia*” eta “*Intxaur kraxkalea*” Azken ballet honen barruan kokatzen da guk erabiliko dugun “*Dantza txinatarra*”. Ballet hau gabon garaian garatua dago. Gabon gauean, Klara izeneko neskatila bat bere etxe ondoko zuhaitz baten ondoan lokartu da eta ametsetan hasten da. Orduan, intxaur kraxkalea printze bihurtzen dela amets egiten du. Ballet guztia amets honen ingurukoa da, bertan, hainbat dantza agertuko dira, eta hauen artean dago gurea, “*Dantza txinatarra*”.

#### -Koreografia

Ikuskizunaren aurkezpen-dantza moduko bat egitea proposatzen dizuegu entzunaldi honekin. Dantza hau oso laburra da, minutu batekoa, hain zuzen ere, beraz, agian nahikoa izango duzue musikaren erritmoa jarraituz eta txinatarrek bezala pausu txikitxoak emanez agertokira ateratzea, koloretako aterki banarekin. Hona gure proposamena:

- Ikasleek talde txikitan kokatuta egongo dira. Musikak baditu errepikatzen eta konbinatzen diren bi motibo, bata flautek adierazten dutena (1. motiboa) eta bestea biolinek adierazia (2. motiboa).

- Hasierako sarrera eta 1.go motiboa entzuten den bitartean geldirik egongo dira ikasleak.

- Zortzigarren segundoan, 2. motiboa entzungo da, orduan, biolinek markaturiko erritmoari jarraituz, ikasle multzo bat aterako da eszenatokitik, biraka dabiltzan koloreetako aterkien atzean ezkutaturik eta pausu txikitxoak emanaz, zortzi pausu hain zuzen ere. Pausu hauek bukatzean flauten motiboa entzungo da berriro, orduan, aterkiak gorantz nahiz alborantz mugituko dituzte ikasleek, euren gorputza eta aurpegia agerian geldituz, eta bata besteari aurpegira begiraturik, edota ikuslegoari begiraturik. Musikaren erritmoa jarraitu beharko dute aterki mugimendu horretan (ikasleek erabaki dezatela nola egin hau). Berriro biolinak entzuterakoan, beste haur talde bat aterako da eszenatokitik eta aurreko taldeak egindako gauza bera (edo antzekoa) egingo du. Lehendik eszenatokitik zegoen taldeak ere erritmoa jarraituz motiboaren arabera gauza bat edo beste egingo dute eszenatokitik irten gabe. Horrela jarraituko dute talde guztiak bertan, eszenatokitik, egon arte.

- Entzunaldi horren 49. segundua askapen garaia dela esango genuke, bertan aterkiek gora eta behera egingo dute eta ikasle guztiak eszenatokitik zehar mugituko dira, kaos baten antzera hasieran eta gero, ordenaren bila, ilara bakar bat egin arte, bukaeran, makurtuz, ikuslegoari agur egiteko. Musika bukatzean ilara bakar bat eginez, eta pausu txikiak emanaz eszenatokitik irten egingo dira.

Koreografia entseatzeko hasi aurretik, komenigarria litzateke musika honen zati edo puntu garrantzitsu eta klabeak ondo bereiztea.

#### **49. Proiektua gauzatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. eta 37. or.*

Proiektua txotxongilo bidez egitea erabakiz gero, orrialde horretan duzue txotxongilo bat, kasu honetan “Pakotxin”, egiteko jarraitu ditugun urratsak, zuen txotxongiloak egiteko eredu gisa balio diezazukeenak. Gogoratu haurrei egiten dituzten txotxongiloak gidoiaren barruan txertatzeko modukoak izan behar dutela, pertsonaiak aukeratu beharra dagoela alegia. Beraz, lanean hasi aurretik talde handian zuen ikuskizuna nola antolatuko duzuen hitz egiteko ordua iritsi zaizue. Landu dituzuen elementuetatik zeintzuk aurkeztuko dituzuen, zein ipuin edo istorio, zein pertsonaia, bakoitzak nork interpretatuko duen...

Eman iezaiezue ikasleei tarte bat argazkiak begiratu eta oinak irakurriaz panpina eraikitzeke urratsak ulertzeko. Noski, pertsonaiaren arabera, aldagaiak txertatu beharko dituzte (neska, mutila, animalia, txinatarra ala ez...) eta horren arabera jantzi eta apaindu. Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu irakurritakoaren inguruan.

- *Ulertu al duzue zein urrats jarraitu behar diren txotxongilo bat egiteko? Zenbat denbora uste duzue beharko dugula horrelako bat egiteko?*

Eman aukera ikasleei lanaren zailtasuna aurreikusiz, lanaren antolamenduan pentsa dezaten. Izan kontuan oreka lehortu egin behar dela kolorea eman aurretik eta baita pintura bera ere, arropa eta ilea jarri aurretik. Planifikazio lana egin dezakezue eurekin batera; zein egunetan egingo dituzten txotxongiloak, zenbat denbora eskaini beharko dioten egun bakoitzean, txukunketa lanak barne, zein material beharko duten

eta nork ekarriko dituen, nola antolatuko duzuen gela lan hori modurik erosoenean egiteko... Gero, berriz ere, gure ikuskizunean agertuko diren pertsonaiak zeintzuk diren argituko dugu, eta baita hauen itxura zein izan daitekeen ere. Honen arabera, orrialde horretan dauden materialez gain beste batzuk erabiltzeko aukera ere izan dezakezue.

Ikasleek gustuko izaten dute txotxongiloak egitea, beraz, nahiz eta gerta daitekeen ikasle guztien txotxongiloak erabili behar ez izatea ikuskizun egunean (ikasleek hainbat funtzio izango dituztelako) ikasle bakoitzak bere txotxongiloa egitea aholkatzen dizuegu.

Ez ahaztu behar besteko garrantzia ematea materialen prestaketa eta gelaren antolaketari eta baita materialen batze eta gela garbi uzteari. Guk honi ematen diogun garrantziaren arabera garrantzia izango dute ikasleentzako aipatutakoek.

Alderdi hauek ere kontuan hartzekoak dira:

#### Gidoia egiterakoan puntu hauek kontutan eduki behar ditugu:

- Antzezpenak ez du oso luzea eta oso konplikatuak izan behar. Zenbat eta sinpleagoa izan, orduan eta hobeto menderatuko baitute.
- Gidoiek motzak izan behar dute. Ez zaigu kantitatea, hau da luzera, axola behar, kalitatea baizik.
- Gidoian, buruz ikasi behar badute, esaldiak ez dira oso luzeak eta konplikatuak izan behar. Ikasleen indarra, testua adierazteko eran jarri behar dugu.
- Hainbat gidoi osa ditzakegu. Hobe da saio bakoitzean 3 edo 4 antzezpen motz egitea. Partaidetza ere areagotuko dugu honela.

#### Pertsonaien banaketa:

Pertsonaien banaketa egin ondoren, pertsonaia hori nolakoa den zehaztu behar dugu

- Hitz egiteko era
- Mugitzeko era
- Nortasuna (alaia, jenio txarrekoa, harroa...)
- Karakterizazioa (jantzia...)

#### Espazio eszenikoa

- Gehiegi konplikatu gabe, espazio eszenikoa garatzeko behar diren elementuak prestatu behar ditugu.
- Musika erabiltzea batzuetan guztiz beharrezkoa da, eta gehienetan interesgarria.
- Efektu batzuk lortzeko argia ere egokia izan daiteke (etxetik ekarritako linternak...)

#### Bukatze:

- Ikasleak ez dira gustagarriak izan behar duten antzezleak, hezten ari diren indibiduoak baizik.
- Ikastaroan zehar egin ditugun ekintzak eta jokoak, baliagarriak dira gure ikuskizun hau garatzeko. Hau da, ez zarete hutsetik hasiko.
- Publikoa ez da inportanteena, baina norbaiten aurrean gure lana aurkezten badugu, ikusle goekia aukeratu behar dugu. Esate baterako Haur Hezkuntzako neska mutilak, edo 1. edo 2. mailako ikasleak. Gurasoak gonbidatzen baditugu ez ditugu eskolako guraso guztiak gonbidatu behar, gure gelakoak baizik, talde txikia osatuz. Adin honetako neska mutilentzat era honetako lanak jende askoren aurrean eskaintzea ez da eta erraza.
- Ikuskizuna amaitu ondoren denon artean kritika egin behar dugu, modu baikorrean, eta oker egindako gauzak zuzentzeko asmoarekin.
- Ikuskizuna behin baino gehiagotan egin behar dugu. Gutxienez 3 aldiz. Lehendabiziko emanaldian ondo atera ez zaizkigun gauzak pixkanaka hobetzeko.

## 50. Bueltako komikia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or.*

Hasteko ikasleei tartetxo bat emango diegu komikia irakur dezaten, eta ondoren, elkarrizketa sortuko dugu, Tough-en hizkuntza funtzioak martxan jartzeko asmoz.

- *Martinek eta Kleok atetik sartu bezain laster, agur egin dute eta gainontzeko guztiek barrezka hasi dira. Nori edo zeri egiten diote barre eta zergatik? “Ni Jau”-k txineraz kaixo esan nahi du.*

- *Zein hizkuntzetan uste duzue hitz egiten ari direla komikiko pertsonaiak afari horretan? Zer iritzi duzu horri buruz? Ongi al deritzozu txinatarrek euren artean hitz egiten dutenean txineraz hitz egiteari nahiz eta euskaraz hitz egiten jakin? Zergatik?*

- *Zein txinerako hitz agertzen dira komiki horretan? Zergatik daude denak kakotx artean idatzita? Zein da hitz bakoitzaren esanahia? Arbelean idatziko ditugu hitz hauek eta euren esanahia eta gure ikuskizunean ere erabiliko ditugu.*

- *Komiki honetan badira konparaziozko esaldi batzuk, zein dira aipatu esaldi horiek?*

- *Azken binetan Morgan eta Xarpak bere poza adierazten dute hitzen bidez, zergatik uste duzu egongo direla pozik? Agian urte berria hasi delako?*

Elkarrizketa bukatu ostean, nahi izanez gero, talde txikitik, pertsonaien paperak banatuz irakurketa dramatiko egiteko aukera duzue. Beste aukera bat, ikasleek euren hitzak erabiliz, komikiko egoera dramatizatzea litzateke, inprobisazio moduko bat eginaz. Eta inprobisazio horretan, narratzaile bat ere jar dezakegu, honen rola, jakintsuarena izango da, bere lana, komikian inplizituki adierazten den informazioa agerian jartzea izango da. Adibidez: “*Kleo koitadua ez da konturatu, ni jau txinerazko hitza dela eta kaixo adierazi nahi duela*”.

## 51. Ba al zenekien?

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 65 .or.*

Talde handian, irakurgaietako *Ba al zenekien?*-eko txinatarrei buruzko bitxikeriak irakurri eta komentatuko ditugu. Hauez gain, beste bitxikeriaren baten berri izanez gero, aipa itzazue.

## **52. Hitz gurutzatuak eta definizioak**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 6. lan-koadernoan, 19. eta 20. or.*

Ikasleek banaka, 19. orrialdean agertzen diren hitz gurutzatuak osatu beharko dituzte. Utzi unitatean kontsultatzen dituzten zalantzak. Hitz gurutzatu horretako hitzak hauek dira: KONPASA-ORGATILA-HUANG HO-PAPERERA-KONFUZIO-TXAI TXIE- MANDARINA-EVEREST-ATURRI.

Hitz gurutzatuak bukatzean, ikasleek banaka, 20. orrialdeko definizioen jarduerak burutuko dituzte eta bukatzean talde handian definizio eroen saioa egingo dugu. Horretarako lan-koadernoan eskatzen zaien definizio eroaz gain, ikasleei nahi adina definizio osatzeko eskatuko diegu eta gero talde handian definizioak asmatzeari ekingo diogu.

## **53. Sintesia**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. eta 40. or.*

Ez ahaztu, sintesi-orrien helburua, ikasitakoaren erreposoa egiteaz gain, hainbat alderdi ebaluatzeko tresna bezala erabiltzea ere badela. Horregatik, ikasleak sintesi-orri hauek bete aurretik unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren erreposoa egitea aholkatzen dizuegu.

Ez ahaztu ikuskizunaren balorazio kritikoa taldean egiteaz, modu baikorreetan, oker egindako gauzak zuzentzeko asmoz.

Sintesi-orrietan dauden jardueraz gain, beste bat ere proposatzen dizuegu. Ikasleek bakarka, Txina hitzaren inguruan kontzeptu mapa osatzea, bertan, ikasi duten guztia adieraziz, eta ondoren, hasieran egindakoarekin alderatzea, ikasi dutenaz jabetzeko.

Nola nahi ere, orriotan, landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira erreposatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta aho hizkuntzaren inguruan landu diren edukiak, prozesuan zehar (hau da unitatean zehar zegozkion jarduerak burutzerakoan) behatu beharko dituzue, ez baitu zentzu handirik, orain, azken unean eta behaketa egiteko asmoz berriro ere errepikatzeak. Unitate honetan arte hezkuntzaren arloak zama ikaragarria du, eta prozesua bera behatu eta ebaluatu behar da.

## Musikako lan-koadernoak

### 4.1 SOINU LUZEAK ETA LABURRAK

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.1. fitxa/CDa, jarduerak, 22. pista*

Badakigu kontzeptu hauek oso erlatiboak direla. Adibidez, futbol partida bat luzea egingo zaigu aspergarria eta joko eskasekoa bada, eta aldiz laburra, joko ona, gol asko eta emozioa izan baditu. Ariketa honetan antzeko zerbait gertatzen da. Oilarraren kukurrukua luzea al da? Kilkerraren "kri" batekin konparatuz gero, bai noski.

Bi kolpe emango ditugu. Bata mailuarekin, bestea burdinazko baketa batekin. Mailuak iltzea kolpatuko du eta baketak triangelua. Ekintza, berdina da bi kasuetan, baina ondorioa ez. Mailukadaren soinua lehorra da, laburra. Triangeluarena, aldiz, erresonantziaren ondorioz, luzea.

Hamar hotsen zerrendatik, erdiak grabatu ditugu. Hauek entzun, ordenatu eta luzeak edo laburrak diren adierazi ondoren, hausnarketa txiki bat egin eta falta diren soinua luzeak ala laburrak diren adierazi beharko duzue.

Oilarra (1)	Luzea
Ur tantak	Laburra
Astoaren arrantza	Luzea
Mailukadak (2)	Laburra
Triangelua (3)	Luzea
Baloia botea (4)	Laburra
Otsoaren kantua	Luzea
Trumoiak (5)	Luzea
Bihotz-taupadak	Laburra
Ateko txirrina	Txirrin hots denak ez dira berdinak.

Asmatu itzazue soinua gehiago eta, beti ere, ongi zehaztu luzeak ala laburrak diren.

### 4.2. TXIRULA JOTZEN IKASTEN: **GOIKO "Re"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.2. fitxa*

Laugarren murrara iritsi gara. "Musika ikasten ari gara" kantua ekarriko dugu berriro ere gogora. Marretan eta tarteetan kokatzen ziren notak buruz ikasi genituen:

—Marretan: Mi, Sol, Si, **Re**, Fa.

—Tarteetan: Fa, La, Do, Mi.

Ezker eskuko hatzak zabal-zabalik ipiniko ditugu, horizontalki eta esku ahurra guri begira. Eskuin eskuko hatz erakuslearekin (morro) beste eskuko bost hatz puntak ukituko ditugu. Hatz txikitik abiatu eta lodiraino iritsiko gara. Bost hatz hauek pentagramako bost marren isla izango dira. Hatz txikian Mi aurkituko dugu, nagian Sol, erdikoan Si, erakuslean Re eta lodian Fa. Hatzen artean gelditzen diren tarteetan, falta zaizkigun lau notak kokatuko ditugu: Fa, La, Do, Mi.

Baina har dezagun txirula. Goiko Do notaren antzeko posizioa du goiko Re honek. Jarri Do eta egin behar dugun bakarra, atzean dugun hatz lodia kentzea da. Horrela txirularen gainaldeko bigarren zuloa bakarrik dugu tapaturik, *piko* hatzarekin.

Lehenik, orrialdean proposatzen den ariketa landuko dugu. Erritmoa bi edo hiru aldiz landu eta prest izango gara txirula jotzeko.

Ondoren Do eta Re notak konbinatuz hasiko gara. Horretarako errepika ariketak egingo ditugu edo bestela, arbelean eskema bat idatziko dugu aurrez landutako erritmoa erabiliz.

θ θ εε θ  
RE RE DO DO DO

εε εε εε θ  
RE RE RE RE DO DO DO

Aurreko unitateetan egin dugun bezala, errepika ariketak egingo ditugu. Hainbat eskema erritmiko erabiliz, landu nahi ditugun notekin konbinaketak eginaz.

Behin eta berriro joko dugu. Hasteko denok batera. Ondoren taldeak osatuz (lehen ilarakoak/bigarren ilarakoak, neskak/mutilak, izenean "A" hizkia dutenak, "E" hizkia dutenak...) Eta azkenik banaka. Ikusiko duzue, jolas modura eginez gero, ez dira aspertuko eta ongi aterako zaie guk nahi dugun hori.

Ongi atera al da? La nota ere sartuko dugu orduan.

εε εε εε θ  
RE RE DO DO LA LA LA

Amaitzeko, hiru nota hauek erabiliz eta eskema erritmikoa asmatu ondoren, melodia sortuko dugu. Ikusiko duzue zenbat melodia aterako diren. Ondoren, ikasle bakoitzak berea erakutsi, txirulaz jo eta besteek errepika dezatela. Guztiok konpositore gara!

### **4.3 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "MENDIAN"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.3. fitxa/CDa, jarduerak, 23. pista*

Aurrez landuriko hiru notak ditugu abesti honetako izarrak, baina kontuz bukaera aldera Sol ere agertuko baita.

Gogoratu ohiko prozedura:

1. Erritmoa irakurri eta markatu; ahoz, gorputzez...
2. Hitzak irakurri.
3. Solfeatu.
4. Abestu.
5. Txirula jo.

Baina ez ahaztu zein garrantzitsua den "entrenamendu" saioak egitea. Aurreko unitateetan dituzuen adibide erritmikoak erabil ditzakezue momentu honetan landu nahi ditugun notak erabiliz. Irakasleak proposatu eta ikasleak errepikatu.

### **4.4 INKESTA**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.4. fitxa*

Musikaren inguruko inkesta txiki bat prestatu dugu. Gai honi eta zehazkiago, galdera hauei buruzko eztabaida antolatu daiteke. Galdera gehiago ere bururatuko zaizkizue.

Azkenik, arkatza hartu eta bakoitzak bere inkesta beteko du. Erantzunak, ziurrenik, era guztietakoak izango dira. Horrek elkarrizketa sortzeko aukera emango dizue eta ez dago esan beharrik ze garrantzia duen hitz egiteak eta, nola ez, besteena entzuteak. Estatistika bat ere egin dezakezue erantzunekin.

### **4.5 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "ZIRU ZIRU"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.5. fitxa/CDa, jarduerak, 25. pista*

Kantu luzea duzue hau ere, hamasei konpas ditu. Horrelako abestiek arretea gehiago ipintzera behartzen dute ikaslea. Ez da hain arraroa izaten erritmoa irakurri, markatu, solfeatu edo txirula jotzen ari garenean, ikaslea galtzea eta non goazen ez jakitea. Kasu hauetan irakaslearen papera oso garrantzitsua da. Lagundu egin behar zaio haurrari, lasai eta goxo, inor lotsarazi eta barregarri utzi gabe.

Jolasa oso lagungarria da egoera hauetan. Aurreko urteren batean eginiko ariketa bat ekarriko dugu gurera. Arkatza hartu eta konpasak batetik



hamaseira zenbatuko ditugu. Irakasleak, berak bakarrik ekingo dio irakurketa ozenari. Irakurketa erritmikoa, edo melodikoa izan daiteke, kasu bakoitzean landu nahi dena aukeratuz. Une jakin batean irakaslea isildu egingo da eta ikasleek zein konpasetan isildu den asmatu beharko dute. Solfeoaren irakurketa lantzen ari bagara CDa ere erabil daiteke

Solfeoa lantzen ari bagara, berrikuntza bat sartuko dugu. Irakasleak, irakurtzerakoan, hutsegite bat egingo du. Adibidez, laugarren konpasean, Sol esan ordez, Si esango du. Abestia amaitu ondoren, ikasleek akatsa zein konpasetan egin den asmatu beharko dute. Erraz asmatu badute, bi hutsegite egin ditzakezue. Modu honetan, lana egoki burutu ahal izan dugu, modu atseginean. Ez ahaztu musika ematen dugun tarteak, tarte gozagarria izan behar dela.

Txirula jotzen hasterako batek baino gehiagok abestiko notak buruz ikasiak izango ditu. Ez dago gaizki baina, hala ere, pentagrama begiratzeko aholkua eman ezazue. Txirula buruz jo nahi badute, jo dezatela baina pentagramarik izan ezean bakarrik. Gogoratu musika irakurri ere egin behar dela.

Fitxa hau egiterakoan ohiko prozedura jarraituko dugu:

1. Erritmoa irakurri eta markatu; ahoz, gorputzez...
  2. Hitzak irakurri.
  3. Solfeatu.
  4. Abestu.
  5. Txirula jo.
- "Entrenamendua" ez ahaztu.

#### **4.6 ERRITMO ERREGULARRA ETA IRREGULARRA**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.6. fitxa*

Erritmoa entzumenarekin jasotzen zaigun zerbait da. Gorputzez ere bizitzen dugu, eta nola ez, geure barnean sentitzen dugu. Barnean sentitzen dugun erritmo hori, alditan, eta batez ere musikako saioetan, hainbat eratan kanporatu izan ohi dugu orain arte: txaloak eginaz, lurra kolpatuz, perkusiozko musika-tresnak jotuz eta abar. Baina erritmoa begietatik ere sartzen zaigu, dantza egiten ari garenean, mugimenduak erritmikoak izaten dira eta horiek begietatik sartzen baitzaizkigu.

Fitxa honetan begiz sartuko zaizkigu hainbat sekuentzia edo serie. Galdera oso sinplea da: erregularrak ala irregularrak dira?

Lehenengoan, marrazkiko mutiko guztiak, bat izan ezik, besoak beheraka dituztela daude, beraz, irregularra da. Begiratu orduko ematen digu atentzioa besoak goraka dituen mutikoak. Beraz, fitxa honetan egin beharrekoa behaketa lana da erabaki bat hartu aurretik.

#### **4.7 LEHEN MUSIKA-KONTZERTUA**

*Lan egiteko era: Talde handia/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 4.7. fitxa/CDa, jarduerak, 26. pista*

Hamar musika-tresna ekarri ditugu gurera, tartean ahotsa ere bai, denak aski ezagunak dira. Baina ez ditugu bakarka entzungo, binaka baizik. Ezker aldeko bostek, laguntzaile bana aurkitu baitute eskuin aldean.

Entzun arretaz, ea entzundako bikoteak elkartzen dituzten. Helburua entzunaldietan arreta jartzea da, nahiz eta oso sinpleak izan. Baita hainbat musika-tresnen tinbreak ezagutzen joatea ere. Eta zergatik ez, bakoitzaren gustuak zein diren esateko garaia ere izan daiteke. Agian, norbaiten iritziz, xilofonoa eta triangelua ez dira ongi uztartzen. Proba egin ezazue ikasleek zein musika-tresna bikote osatzen dituzten ikusteko.

1. Gitarra eta ahotsa
2. Trikitixa eta panderoa
3. Xilofonoa eta triangelua
4. Pianoa eta txirula
5. Tronpeta eta bateria

#### **4.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN "RAN RATAPLAN"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 4.8. fitxa/CDa, jarduerak, 27. pista*

Hau ere hamasei konpasez osaturiko abestia dugu. Bigarren eta laugarren marra arteko nota guztiak agertzen zaizkigu: Sol, La, Si, Do, Re.

Baina berrikuntza bat ere badugu. Zazpigarren eta zortzigarren konpaseko notak lotzen dituen ikurra hain justu ere. *Ligatura* da. Zazpigarren konpaseko Re nota zuria da eta ondorioz bi taupadako luzera du, zortzigarrenekoa berriz, beltza denez, taupada bakarreko iraupena du. Ikur horrek biak nota bat bezala irakurtzera behartzen gaitu, baina bien balioak gehituz. Honela, loturaren edo ligaturaren ondorioz, Re horren luzera, hiru taupadako izango da.

Gogoratu "entrenamenduak" egitea ohiko prozedura jarraitu aurretik:

1. Erritmoa irakurri eta markatu.
2. Hitzak irakurri.
3. Solfeatu.
4. Abestu.
5. Txirula jo.

## LAN KOADERNOTIK APARTEKO KANTAK

### **HARTU ETA PASA**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak, 24. pista*

*Aurretik atzera, hartu eta pasa,  
baloi trukaketa, hauxe da jolasa.*

*1.- Korruan jezarriz gela barnean,  
guztion kemenak landu nahian.  
Aurrerantz makurtuz, baloia hartuz,  
atzetik norbaitek kenduko dizu.*

*2.- Ez izan koldarrak, zaindu indarrak,  
ekin eta jarrai, malgu bizkarrak.  
Burutzen ari naiz erritmo lanak,  
kantuz eta bertsoz ongi esanak.*

*3.- Geldi egon baino ekin nahiago,  
pilotaren bira begira nago.  
Amaitzeko deia iritsi zaigu.  
Egiteko denak egin ditugu.*

Erritmoa lantzeko kanta aproposa dugu hau. Lehenago aipatu dugu erritmoa begietatik ere sartzen zaigula, bada, hementxe dugu adibide garbia.

Lurrean eseriko gara bata bestearen atzean eta hankak pixka bat zabaldua. Lerroaren hasieran dagoenak baloi bat izango du eskuetan, eta atzekoari pasa beharko dio, honek hurrengoari eta horrela azkenekoarengana iritsi arte. Segidan, eta gelditu gabe, atzetik aurrera, banan-banan, pasako dugu baloia, berriro ere aurrera iritsi arte. Gure proposamena zortzi lagunez osatutako lerroak egitea da. Horrela, hobeto konturatuko gara talde guztiak erritmo bera jarraitzen duen hala ez. Lerro guztietako baloiek batera joan beharko baitute.

Erritmoari jarraituz eskuen/besoen koordinaketa eta gorputzaren malgutasuna dira ariketa honen bidez baloratu nahi duguna.